



Langosta baten inguruan
Telesforo Monzon

Elkar, 1995

Buru-buztan urrupatzekoa

TELESFORO MONZON politikaria bai, noski, nola ez. Telesforo Monzon letragilea ere bai, *Itziarren semea*, *Lepoan hartu*, *Batasuna*. Telesforo Monzon poeta pixka bat, 36ko gerra osteko exilioak idatzitakoa begiratzen aritu zarelako. Telesforo Monzon antzerki idazlea entzutez, biografia irakurri diozulako. Baina Telesforo Monzon prosagilea ez, hori ez. Esan nahi dut erabat ezezagun zitzaidala Monzonen fazeta hori; eta pentsatzen dut niri bezala beste askori. Baina izan badu prosa lanik, aukeratu, bildu, liburuan argitaraturik esan nahi dut, *Langosta baten inguruan* izenarekin. Koldo Izagirrek egin zuen auke-raketa eta egin zion hitzaurrea. Hitzaurrean esaten zaigu, adibidez: “Lizardiri bezala gertatu izan zaio Monzoni ere neurri batean, poetaren ospeak ezkutan utzi izan du prosagilearen handia”. Poetarenak, antzerki idazlearenak, kantugilearenak, politikariarenak. Biak omen dira, ordea, Lizardi eta Monzon, prosan ere handi. “Uste izan dugu euskal kazetaritza Kirikiño zela eta ezer guti besterik”; baina gero gehitzen dira Larreko, Manezaundi, Jean Etxepare, Zerbitzari, Salaberry, Larzabal, Etcheberry, Monzon bera, “euskaraz idatzi diren irakurgai ederrenen egileak”. Gaurko kazetaritzaren aitzindariak ezagutzeko lan horretan, beraz, geldialdia egin beharren gaude Monzon-Enean.

Eta izan artikuluak dira liburu honetan biltzen direnak, *Alderdi* aldizkari klandestinoan 1949. eta

1960. urteen artean argitaratuak. Urte politikoki gorabeheratsuak Monzonentzat, 1952an utzi baitzuen kontseilari kargua, alderdia utzi gabe, Euzko Gobernuarekiko desadostasunengatik. Hala ere, *Agirre Lehendakariaren gaubeila* artikuluan kontatzen zaigu nola Monzonen etxeak hartu zuen Jose Antonio Agirreren gorpua, dagoeneko 1960an. Baina ez pentsa, eta artikulua gogoangarri hori alde batera utzita, gainontzeko testuek zera politikoa hunkitzen dutenik. Kontrara, gai askoz mundutarragoak, egunerokoagoak, herritarren kezkenagandik gertuagokoak dira hemen aurkituko dituzunak. Ondo baino hobeto laburbiltzen da hori hitzaurrean: “KAS alternatibaren puntuak buruz ikasaraztea baino eraginkorrago zeritzon ipuintxo bat kontatzeari”. Eta estiloa bera ere, hizkera, are euskara batuaren aurreko euskara batua –bizkai-gipuzkoa mugakoa, lapurtarra, erabat gaurkoa–, eduki horiei dago hertsiki lotua, irisgarria nahi du izan –eta bada–, irakurria. Azken batean *Langosta baten inguruan*, hasi eta buka, oso egiten baita gozoa, irakurgarria, buru-buztan urrupatzeko modukoa. Artikuluak argitaratu ziren garaian, seguruenera, baina baita 2013ko begiekin ere begiratuta. ■

**Aritz
Galarraga**



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com

